

LIBURU AURRERAPENA

JOSU LANDA



Josu Landa Ijurkoren lehendabiziko nobela aurkeztuko du datorren astean Susa argitaletxeak: *Odolbildua*. 50eko hamarkadako Portugaleten girotua, Mentxu izeneko botikaria du pertsonaia nagusi nobelak. Lehen kapituluko pasarte bat da honako hau.

Odolbildua

Txopatik hurreratu zitzaion bate-la *Bermejo II* atoiontzari. «Bazen garaia» izan zuten Santosen agurra, eskuma txikita zain luzatzen zuten artean. Koska txikia izan arren, jauzi egiten lagundu zion Mentxuri. Apa eman zion soka-muturrari Joseluri jaurtiki aurretik, bere begiak semearenetatik aldendu barik. Lainoaren iragazkiek indarra kendu zioten mezuaren gurasokeriari.

—Itzul zaitez kaira, seme. Gero Santurtzin barrena lehorreratuko gara.

Atoiontziko motorra martxan zegoen eta Mentxuk hankak zabaldu zituen zoruan, segurtasun bila. Gabanaren botoiak katean askatu ondoren bisera kendu zuen, eta ile-sapa beltzarana bizkarrean behera haizatu. Ilehoria zen berez, baina gerra amaitu ezker beltzaranera tintatua zeukan beti. Santosen atzetik jo zuen gidari-postura. Ibilzterakoan eskuaz laguntzen zion ezkerreko hankari, ia nabaritu ere egiten ez zen herrena gutxiagotzeko.

—Ez zait lainoa batere atsegin, Santos. Aukera zenezakeen beste egun bat...

—Kexu gehiegi izaten duzu ahotan. Eguraldia gure alde dago gaur.

Ahoa bufanda azpian sartu zuen Mentxuk, berbak dosifikatu guran. Lainoaz haratagoko usnatze saioan ari zen.

—Irudipena daukat norbait zelatan ari dela lainoaren atzetik.

—Hitzordua Pedriñok egin du, zurekin kontaktatu gura ei duen morroi batek eskatuta...

Atoiontzaren jabea zen Pedriño Bermejoren aipua egitean, belarri parera altxatu zituen esku biak, erruak kitatze aldera. Motorraren durundia urrutitik entzungo zen, areago abiada bizkortzen ari zen horretan, baina Mentxu ez zen harexek salatuko lukeenaren beldur.

—Nora goaz?

—Azken Portura.

Nerbioi eta Abra inguruko kanpandorreak eta karilioiak joka hasi ziren. Erlojua kendu zion Santosi faltrikeratik. Makurtu egin behar izan zuen ordua ikusteko, katea laburregia zuen. Patroiak ere orratzei erreparatu zien, erlojua berreskuratuta.

—Ordu bata... berandutxo helduko gara.

—Seinale txarra... Areetako erlojuak ez du ordua jo.

—Zure marka guztiak onduko dituzu gaur, Mentxu... —gozo mintzatzen

saiatu zen—. Zelan dakizu jo ez duena Areetakoa dela... eta zergatik seinale txarra?

—Heltzen ari gara. Ganbarotean itxarongo dut; eroan egizu morroi hori behera.

Santosek silueta ilun bat besterik ez zuen bereizi Azken Portuko kaian. Ez zuen zubia utzi behar izan, aski izan zuen helizeei kontrako indar apur bat ematea ontziaren karela lehorretik metro eskasean hurbiltzeko. Apurka zehatzagotuz zihoakion zain zegoen morroia, zutunik eta mugitu barik, xira ziztrin batez jantzirik eta burua soil. Besoaren mugimenduz adierazi zion ontzira jauzi egin zezan. Jaitsi eta soka pareaz atoiontzia amarratu eta gero ganbaroterako bidea egin zuten. Espero baino gazteagoa zirudien bisitariak, hiruretan gazteena bai behintzat.

—Atera egizu oportu pixka bat, Santos... —gelaren erdian zegoen Mentxu, harro plantan zain.

—Ez naiz tragotan etorri...

—Ez, itxaron, neronek prantatuko ditut.

Ezegunaren presentziaz beste eginez ekin zion Mentxuk enkontruari, eta haren aurpegira begiradarik zuzendu ez zuen legez, haren berbek ere ez zuten, antza, ardurarik lortu emakumearen belarrietan. Goiko armairutxo batean zegoen botila patxada handiz miatzeari ekin zion Mentxuk. Etiketen tamaina txikiko hizkiak irakurtzeko ere beta hartzen zuen aldizka. Isiluneak trinkoagotu egiten zuen ganbaroteko giroa, eta barbarik ez egitea gero eta plazeragoa zitzaion Mentxuri, taktikaren eta jolasguraren arteko muga ezagunean. Santos besoak gurutzatuta zegoen bizkarra atean etzanda, eta bisitaria gelaren erdian, tximak beratuta eta jantziak blai. Men-

txuk sortutako beirazko tilinak soilik entzuten ziren gelan. Ezinegonak bulztatu zuen morroia eskaizko besaulki zikin batean jesartzera. Mentxuk hiru kopatxo bete zituen eta gorputza jiratura edalontzi bana eman zien. Santosek ez zuen hartu. Aurreko muzinaren ondoren, «ez naiz tragotan etorri» errepikatu zuen Mentxuk bere kolkorako, barretxo bat egin zuen.

—Inporta zaizu beste jesarleku horretan jartzea? —zurezko aukitxo bat

frantsesek han, baina hemengo poliziek harrapatu naukate, eta xantaitu egin naute. Kartzelari ihes egiteko modu bakarra hauxe jarri zidaten: zuen bandan infiltratzea haiantzat lan egitearren.

—Delinkuente arriskutsua zaitugu, beraz, poliziek hain harrapatu baldin bazauzkate.

—Ez txantxarrik egin. Nik ez dut txibatoa bihurtu nahi —kinkada bakarrean sikatu zuen kopatxo—. Polizia gainean daukazu, sinis egidazu, zuen urrats guztiak kontrolatzen dituzte. Niri dagokidanez, datu faltsuak emango nizkieke diru truke, eta kito. Ihesa antolatzeke behar dut.

—Hoa poliki, nahastu egingo nauk bestela. —Mentxuk berriro bete zion edalontzia, eta berea mahaian utzi—. Ez zekiat ongi ulertu dudanez, ez zekiat zer ulertu behar dudanez ere. Zuk ulertu duzu, Santos?

Santosek ezezkoa egin zuen buruaz, eta sakelatik erlojua aterata giltza emateari ekin zion. Mentxu zutitu eta Santosen aldameneko paretan bilatu zuen sostengua. Lagunaren lehenagoko modu berean gurutzatu zituen besoak.

—Ez zekiat zehazki zertaz ari haizen, baina zerbait konkreturik gura izanez gero, eska egik lasai, lasai baina azkar.

—Zuen bapore guztiak kontrolaturik dituzte. Nire lankidetzaz txakurrak uxatu ahal izango dituzue. Hori da nire proposamena.

—Uste diat tronpatu egin haizela.

—Nik ez dut uste, zu Carmen Diaz zara.

—Diaz ez, Diaz de Alza. Abizenean ere ez duk asmatu.

Txizagurak aztoratutako berna estutze batzuk burutu zituen Mentxuk. *Bermejo II*ko komunak probatutakoa zen, kuxidade bat.

—Sentitzen diat, iruditzen zaidak ez duela luzatzea merezi.

—Hobe pentsatu behar zenuke.

Edalontzia kendu zion eskuartetik Mentxuk, mahaira ekarri zuen.

—Beste bat arte.



GARBINE UBEDA

seinalatu zion—. Zu zagozen horixe dut gogokoena.

Oportu apur bat isuri zuen lurrera morroiak jesarlekuz aldatzean.

—Eta? —galdetu zuen Mentxuk, segundo erdi bateko zurrutaldiaren ondoren.

—Indotxinara joateko asmotan nentzen, lanerako jendea behar ei dute